



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2018ko bigarren hiruhilekoa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantza (ia) positiboa da dagoeneko
- EBrekin ere partekatzen duen egonkortasun-esparruan
- Frantziak eta Erresuma Batuak negatiboan jarraitzen dute; Alemaniak, ordea, positiboan



1 EAEko familien konfiantza (ia) positiboa da dagoeneko

EAEko familiek pertzepzio positiboa edukitzen jarraitzen dutela erakutsi du 2018ko bigarren hiruhilekoak, ondoz ondoko bosgarren hiruhilekoz. +2ko balioarekin, azken hiru hiruhilekoetako antzeko balioetan dago EAEko familien konfiantza; are, pixkatxo bat hobetu da, eta, batez ere, neutraltasun-profila sendotu da, konfiantzazko jarrera islatuz.


Bada, urteko lehenengo hiruhilekoko batez bestekoa +1,5ekoa izan da; hots, 2013tik eduki dugun hiruhileko onena izan da, EAEko ekonomiak izan dituen emaitza makroekonomiko onekin bat eginez, 2018ko lehenengo hiruhilekoaren urte arteko bilakaeran ekonomiak (+3,1) nahiz enpleguak (+2,2) eduki duten hazkundeari dagokionez.



2 | EBrekin ere partekatzen duen egonkortasun-esparruan

2018ko bigarren hiruhilekoan, estatuko eta EBko familietako kontsumitzailearen konfiantza-indizea zerokoa izan da. Azken hiruhilekoekin alderatuta, ez dago aldaketarik, eta neutraltasunaren inguruan daude; are, hobekuntza txikia egon da, balio negatiboak atzean utzita.

Oro har ikusirik, EAEko familien konfiantza 0,5ekoa eta 0koa izan da 2018ko lehenengo sei hilekoan, bi kasuei dagokienez; hau da, EAEn ganean duten konfiantza (1,5) pixka bat handiagoa da estatuaren eta EBren ganean dutena baino, baina antzeko handitasun-ordenan daude. Azken batean, familiek hazkunde ekonomikoan eta enpleguaren hazkuntzan dagoen egonkortasun-esparruari erantzunez eraikitzen dute beren konfiantza, eta, aurreikuspenen arabera (Europako Batzordea eta NDF, beste erakunde batzuen artean), halaxe izaten jarraituko du 2018an eta 2019an ere.



* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie.


3 | Frantziak eta Erresuma Batuak negatiboan jarraitzen dute; Alemaniak, ordea, positiboan

Aurreko hiruhilekoek aurreratu duten profila sendotu du Frantziako, Erresuma Batuko eta Alemaniako familien konfiantzaren bilakaerak. Hala, Alemaniako familiak balio positiboetan daude (6, 1p.); hala ere, atzerakada arina gertatu da, gobernu berria eratzeko prozesuan herrialdean bizi izan den nolabaiteko ezegonkortasunaren ondorioz, beharbada. Dena dela, 2018ko lehenengo hiruhilekoa 6,5ekoa da jada, aurreko hiruhilekoko batez bestekoa (5,5eko) gaindituz.

Frantziako (-6, 0 p.) eta Erresuma Batuko (-4, 0 p.) familiek aurreko hiruhilekoetako profil negatiboari eusten diote, aipatzeko moduko aldaketarik gabe. Bi herrialdeek dauzkate familien konfiantza-erakuntza ahultzen duten eszenatoki konplexuak.

Horrela, urteko lehenengo sei hilekoan, EAEko familien konfiantzak gainditu egin du Erresuma Batuan eta Frantzian erregistratutakoa, baina Alemaniako familiek adierazitakoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren 2017ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie..

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN OSAGAIK


- ekonomia orokorraren abiada onean bermatutako konfiantza
- eta, bereziki, enpleguaren bilakaeraren gaineko igurikimen positiboan
- nolabaiteko neutraltasunarekin, etxeko ekonomiari dagokionez
- eta (oraindik ere) ez du lortzen aurrezpenaren balorazioa positiboa izatea
- beren konfiantzaren hobekuntza finkatuz doaz EAeko familiak

4 | ekonomia orokorraren abiada onean berमतुतako konfiantza

Urteko bigarren hiruhilekoan, ekonomia orokorraren abiadaren gaineko konfiantzari eutsi diote EAEko familiek (+3), hobekuntza-lerroa pixkanaka moteltzen duen profilarekin, ordea.

Familiak datozen hamabi hilabeteetarako daukaten balorazioa laburbiltzen du indizearen balioak: hiru familiatik ia bik uste du ekonomia orokorrak berdin jarraituko duela (% 59k, 9 p.); bost familiatik batek baino gehiagok uste du hobetzen jarraituko duela (% 21ek, -7 p.), eta hamar familiatik batek baino pixka bat gehiagok uste du okerrera egingo duela (% 13k, -4 p.).


Ekonomia orokorrak (gutxienez) orain arte bezala jarraituko duelako, hobekuntza-erritmo bera edukiko duelako eta muturreko jarreraren proportzioa (hobekuntza areagotzeari nahiz moteltzeari dagokionez) beheranzkoa delako ideia nagusitzean oinarritzen da EAEko familien konfiantzan gertatu den atzerakada (3, -2) arin horren interpretazioa.



5 | eta, bereziki, enpleguaren bilakaeraren gaineko igurikimen positiboan

EAEko ekonomian enpleguak duen bilakaerari buruzko indizea 15 puntukoa da (+3), eta ondoz ondoko hamahiru hiruhileko kateatzen ditu balio positiboetan. Lan-merkatua hobetu delako iritzi nagusi eta partekatuaren emaitza da: familien herenak uste du langabeziak behera egiten jarraituko duela datozen hamabi hilabeteetan, eta bi familatik batek (% 48k) uste du bere horretan jarraituko duela; gorakada aurreikusten duen kolektiboa gutxienera da (% 7).

EAEko familien iritziak barne hartzen du inguruan gertatzen denaren pertzepzioa, eta, EAerako datuekin, berresten ari da iritzi hori: erregistratutako langabeziak (-% 8 apirilean, urte arteko tasan) eta langabezia-tasak (% 11,3, lehenengo hiruhilekoan) behera egin dute.




6 | nolabaiteko neutraltasunarekin, etxeko ekonomiari dagokionez

EAEko familien konfiantzaren ibilbidearekin gertatu den bezala, etxeko ekonomiak datozen hamabi hilabeteetan edukiko duen bilakaerari buruzko indizeak balio negatiboetan egoten jarraitzen du (-3), nahiz eta hobera egin duen (+3 p.), aurreko indizearekin alderatuz gero.

Are gehiago, azken hamalau hilabeteetan eduki ditugun hiru emaitza onenetako bat da, eta 2018ko lehenengo sei hilabeteak (-5) eman du azken bost urteotako batez besteko datu onena (-15, -7, -7, eta -6, 2014rako, 2015erako, 2016rako eta 2017rako, hurrenez hurren).

Azken batean, etxeko ekonomiaren abiadaren gaineko igurikimenak pixkatxo bat zuhurragoa izaten jarraitzen du, ekonomia orokorraren eta langabeziaren inguruan adierazitakoak baino.

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak




7 | eta (oraindik ere) ez du lortzen aurrezpenaren balorazioa positiboa izatea

EAEko familiek datozen hamabi hilabeteetarako dauzkaten aurrezpen-igurikimeneen indizeak balio negatiboetan jarraitzen du (-7), nahiz eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta hobera egin duen (+3) eta azken hiru urteetako emaitzarik onena den.

Hala, pesimismoan (balio negatiboetan) egoten jarraitzen du EAEko familiek aurrezteko duten gaitasunari buruzko indizeak, baina, arian-arian, susperraldi-profil leuna baieztatzen ari da: 2018ko lehenengo sei hilekoaren batez besteko datua -8koa da, eta zifra horrek nabarmen hobetzen ditu aurreko lau urteetako datuak (-26, -16, -13 eta -14, 2014rako, 2015erako, 2016rako eta 2017rako, hurrenez hurren).

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 | beren konfiantzaren hobekuntza finkatuz doaz EAEko familiak

EAEko familiek aztertu diren eremuetan dituzten igurikimenen emaitzen arteko konbinazioak eratzten du familien konfiantzaren indizea. 2018ko bigarren hiruhilekoan, balio positiboetan (2) sendotu da EAEko familien konfiantza, eta pesimismotik urrunduta nolabaiteko neutraltasuna islatzen duen bosgarren hiruhilekoa izan da, baikortasun-jarrera (argiago) bateranzko bidean.

Aintzat hartu diren lau indizeen bi blokeetan erregistratu den jarrera konbinatzen du emaitza horrek. Alde batetik, "etxetik kanpoko" indizeak daude (ekonomia orokorraren (3) eta langabeziaren (15) abiadaren gaineko igurikimenak); argi eta garbi, positiboak dira, eta hobekuntza jarraitua berresten dute. Bestetik, ordea, "etxe barruko" bi indizeek (etxeke ekonomiaren (-3) eta aurrezpenaren (-7) abiadaren gaineko igurikimenak) negatiboak izaten jarraitzen dute; hala ere, biak hobetu dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Azken batean, EAEko familien konfiantza osatzen duten lau indizeetatik hiruk egin dute hobera, eta besteak bere horretan jarraitzen du. Jokaera horrek babestu egiten du EAEko familiek dagoeneko optimistatzat jo daitezkeen balioen gainean daukaten konfiantza pixkanaka sendotzen ari delako ideia.


Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE

Indizea	2015	2016	2017	IIIH-17	IVH-17	IH-18	IIH-18	aldea
Familien konfiantza	-6	-5	1	0,4	1	1	2	+1
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	9	6	5	3	-2
Etxeko ekonomia	-9	-5	-5	-5	-4	-6	-3	+3
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	7	9	12	15	+3
Aurrezteko gaitasuna	-16	-12	-10	-9	-8	-10	-7	+3



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- inflazioaren gorakada aurreikusten dute EAEko familiek
- erosteko unearen inguruko balorazioa ez da aldatu, eta negatiboa izaten jarraitzen du
- "erosketa handiak" egiteko igurikimenak okerrera egin du zertxobait
- eta etxebizitza eta autoa erosteko asmoak geldirik jarraitzen du
- EAEko familiak geldirik daude kontsumoa suspertzeari dagokionez




9 | inflazioaren gorakada aurreikusten dute EAEko familiek

Bi familiatik batek uste du datorren urtean prezioek azken hamabi hilabeteen antzera egingo dutela gora (% 55), aurreko hiruhilekoko antzeko ehunekoan (% 57). Bestetik, hiru familiatik batek (% 31) uste du prezioak azkarrago haziko direla, aurreko bi hiruhilekoetako antzeko ehunekoan. Eta, azkenik, bere horretan jarraitzen du prezioak motelago haziko direla uste duten familien taldeak (% 13).

Horrela, datozen 12 hilabeteetako prezioen bilakaeraren gaineko igurikimeneen indizeak negatiboa izaten jarraitzen du (-18), baina urteko lehenengo hiruhilekoan (-24) baino txikiagoa da.

Bada, erreferentziazko prezio jakin batzuen (petrolio) bilakaerak inflazioaren² gainean edukiko duen goranzko eragina deskontatzen ari dira EAEko familiek, azken urtean gorakorra izan den bilakaeraren nahiz ekonomia-jardueraren dinamismoaren beraren ondorioz.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan? (pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


10 | erosteko unearen inguruko balorazioa ez da aldatu, eta negatiboa izaten jarraitzen du

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...)?

Egoera orokorraren eta erosteko erabakien gainean hausnartzea da erosteko unearen xedea. 2018ko 2. hiruhilekoan, lau familiatik hiruri ez zaie axola oraingo erosketa-unea (% 75, +11 p.); gainera, une ona dela uste duten familien ehunekoa (% 7, -9 p.) pixka bat txikitu da, eta geratu egin da une txarra dela uste dutenen taldea (% 18, -2 p.).

Bada, erosteko unearen balorazioaren indizea (-11) negatiboa da, eta atzera egin du pixka bat, urteko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta.

Erosteko unearen balorazioa¹
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11 "erosketa handiak" egiteko igurikimenak okerrera egin du zertxobait

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2018ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familiek produktu mota horiek erosteko duten igurikimenak azken hiruhilekoetan erregistratu den erregulartasun-gabeziaren sekuentzian egoten jarraitzen du. Hala, etxeko erosketa handien igurikimenaren indizea negatiboa da (-6. -3 p.), eta okerrera egin du urtea abiatzearekin bat.

Indizea osatzen duten hiru taldeen egonkortasunean oinarritzen da emaitza hori; izan ere, familien bi herenek (% 65) uste dute beren erosketa-igurikimena antzekoa izango dela, eta bost familiarik bakarrak (% 21) murriztuko ditu erosketak; hamar familiarik batek baino pixka bat gehiago (% 12, 4 p.), ordea, areagotu egingo dituzte.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12 | eta etxebizitza eta autoa erosteko asmoak geldirik jarraitzen du

EAEko familien % 2,5ek adierazi dute datorren urtean etxebizitza bat erosteko asmoa, 2018ko lehenengo hiruhilekoko ratioaren antzera (+0,2 p.) eta 2017an lortutako batez besteko balioaren azpitik oraindik (% 3,0).

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonen %-a)



2016ak (% 5,2) eta 2017ak (% 6,0) erakutsi zuten, hurrengo 12 hilabeteetan autoa erosteko asmoa suspertzen ari zen. 2018ko lehenengo hiruhilekoa atzerapen batekin abiatu zen (% 4,3), baina ez da bigarrenean mantendu, suspertze argia egon baita (% 6,2, +1,9 p.), ibilgailuen erosketak eta uda aurreko aldia lotzen dituen urtaroko jokaerarekin lerrokatuta.

Autoa erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonen %-a)






13 | EAEko familiak geldirik daude kontsumoa suspertzeari dagokionez

2018ko bigarren hiruhilekoak erakusten duenez, EAEko familiak balio negatiboetan daude prezioekin eta erosteko eta inbertitzeko erabakiekin zerikusia duten indizeei dagokienez. Hala,

- Inflazio-gorakada. EAEko familiek igurikimen argi eta garbi negatiboa (-18) daukate prezioen bilakaeraren gainean, datozen hilabeteetan prezioak azkarrago haziko direlako iritzi hedatuenaren ondorioz.
- Erosteke unearen balorazioak okerra egin du (zertxobait). Ondoz ondoko sei hiruhilekoz, EAEko familiek erosteke unearen gainean duten balorazioa negatiboa da (-11); horrela, urteko lehenengo sei hilekoak (-8) okertu egin du 2017an erregistratutako susperraldiaren ibilbidea (-3). Azken batean, erosteke unearen balorazioan egon den hoberantzko ibilbidean nolabaiteko geldialdia egin dela adierazten du horrek.
- Atzerapen (arina) erosteke igurikimenean. Erosketak egiteari dagokionez, eta urtearen hasierako emaitzarekin alderatuta, EAEko familien igurikimenak (-6) okerrera egin du pixka bat (-3), eta hobekuntza-profila ezartzera iristen ez den bide irregularrean egoten jarraitzen du.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>III H-17</u>	<u>IV H-17</u>	<u>I H-18</u>	<u>II H-18</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	13	-17	-6	-17	-24	-18	+6	
Erosteke unearen balorazioa	-19	-8	-3	-5	-2	-5	-11	-6	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-7	-2	-7	-3	-6	-3	

¹ 2014, CCaren neurriaren hasiera

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea
euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera
beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2016	2017	III H-17	IV H-17	I H-18	II H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-5	1	0,4	1	1	2	▶
• Estatua*	-4	-1	0	-2	1	0	▶
• EB*	-6	-3	-2	-1	0	0	▶
○ Frantzia*	-14	-6	-5	-6	-6	-6	▶
○ Alemania*	-3	3	4	5	7	6	▶
○ Erresuma Batua*	-2	-6	-6	-5	-4	-4	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-7	6	9	6	5	3	▶
• Etxeko ekonomia	-5	-5	-5	-4	-6	-3	▼
• Langabezia	6	12	7	9	12	15	▲
• Aurrezkia	-12	-10	-9	-8	-10	-7	▼
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	13	-17	-6	-17	-24	-18	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-8	-2	-5	-2	-5	-11	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-10	-7	-2	-7	-3	-6	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	3,0	3,1	1,9	2,3	2,5	▶
• Autoa	5,2	6,0	6,4	5,4	4,3	6,2	▲

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarrila-otsaileko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2016	2017	III H-17	IV H-17	I H-18	II H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-5	1	0,4	1,0	1	2	▶
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-3	5	6	3	5	8	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-1	2	1	2	3	2	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	0	-1	2	1	0	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-12	-5	-7	-5	-9	-3	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	1	6	6	5	6	6	▶
• Langabea	-18	-7	-11	-5	-5	-8	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)	-9	-4	-6	-3	-6	-2	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-21	-14	-14	-14	-16	-14	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-4	2	0	3	1	4	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	7	15	16	10	13	13	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	II H – 17	III H – 17	IV H – 17	I H – 18	II H – 18p	(azkena)
BPG	2,9	3,0	3,0	3,1	--	I hir.
Familien kontsumoa	3,0	3,0	2,8	2,9	--	I hir.
Afiliazioa	1,3	-0,6	1,7	-0,2	1,0	maiatza
Erregistratutako langabezia	-2,6	-2,3	-2,6	-0,8	-2,9	maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,2	1,0	-0,8	0,3	--	I hir.
Etxebizitzen salerosketa	-0,7	-10,6	-10,4	40,7	--	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	10,8	-12,7	22,5	-4,8	1,1	maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA - METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie.
- Maiatzaren 07tik 19ra (2018ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm